


ALBE

BERTSO AGENDA

2023 - 24 / URRIA - URTARRILA




AFARI TEMATIKOA - ALBE GALA - AZOKAKO SAIOA - BERTSO JIRAK


ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA

www.albe.eus

SARE SOZIALAK

 albe_bertso

 @albertsolari

 Algortako Bertsolari Eskola

HARREMANETARAKO

Martikoena 16, 2. solairua, 2. bulegoa
Algorta (Getxo)
48992 Bizkaia

605704385

albegetxo@gmail.com

Diseinua: KermanDF

Laguntzaileak:





- 4** EKITALDIAK
- 7** BIZKAIKO BERTSOLARI
TXAPELKETA
- 8** ASE BERTSOZ EKIMENA
- 10** ARGAZKI GALERIA

-  *Jaialdia*
-  *Berezia*
-  *Bertso jira*
-  *Txapelketa*
-  *Bertso otordua*

AZAROA

10

BARIKUA

BERTSO AFARI
TEMATIKOA**20:00** ALGORTAKO AZEBARRI

Bertso afari berezi hau oso da erakargarria, bertsolari bikainak etortzeaz gain, entzuleak mozorrotuta etorri ohi direlako.

lazkoak trap kultura izan zuen gaitzat, eta Maialenek eta Sustraiak bertso saio latza egin zuten. Orduko argazki mundialak gure web-gunean dituzue ikusgai.

Aurtengo gaia **zirkua** izango da. Animatu, jantzi mozorroa eta etorri urteko bertso ekitaldirik saltsEROenera!

2021ko afari *traperoa* / albe.eus**Bertsolariak:**

Jon MAIA
Oihana BARTRA

Gaia: ZIRKUA

ABENDUA

1

BARIKUA

KULTURALDIKO
BERTSO SAIOA**20:00** SOPELAKO KURTZIO
KULTUR ETXEA

Zorionez, Euskararen Nazioarteko Egunak bazterrak astintzen dituzte urtean-urtean.

Bada, sasoi horretantxe antolatzen du Uribe Kostako Mankomunitateak Kulturaldiko bertso saio ederra.

Ikus dezakezuenez, bertsolari talde errimeak daukagu egun horretarako.

Dena daukagu prest. Zuek animatzea baino ez dugu falta!



2019ko Sopolako saioa / albe.eus

Bertsolariak:

Nerea IBARZABAL
Ane LABAKA
Imanol URIA
Sustrai COLINA

Gai-jartzailea: Haritz Urrutikoetxea

ABENDUA

2

ZAPATUA

SOPELAKO BERTSO JIRA MUSIKATUA

17:30 SOPELA

Bertso eta soinu, soinu eta bertso. Bikote ona dantzarako. Sopelako bertso jira musikatuak badu pisua eta indarra dagoenako.

Poteatzeko ez da bertsozik behar. Baina bertsoak entzutea poteatu bitartean egunero gure esku ez dagoen kapritxoa dugu. Ez izan hotzaren beldur, abenduan izan arren, eta erduze geugaz poteatzera eta bertsoak entzutera.



2018ko bertso jira / albe.eus

Bertsolariak:
Inazio VIDAL
Etxahun LEKUE

ABENDUA

2

ZAPATUA

LEIOAKO NEKAZARITZA AZOKAKO BERTSO SAIOA

19:00 BULEBARRA

Nekazaritza azoka aitzakia polita izaten da gure lurreko produktuak bertatik bertara dastatzeko. Ortuariak, frutak, gaztak eta txakolinak protagonismo berezia hartzen dute honelakoetan.

Baina eskaintza zabal horri bertso ederak entzuteko aukera eransten badiogu, gure urdaila ez ezik, gure gogoa ere poz-tuko da!

Edan debalde bertsogintza bizi-bizitik!



2019ko azokako saioa / albe.eus

Bertsolariak:
Peru VIDAL
Josune ARAMENDI
Unai ITURRIAGA
Eli PAGOLA
Gai-jartzailea: Beñat VIDAL

ABENDUA

10

DOMEKA

ALBE GALA

12:00

ALGORTAKO
LA OLA JATETXEA

Bertso urte oparoari tamainako errematea zor zaio. Algortako Ereaga hondartza eszenatoki natural zoragarria dugu helburu horretarako. Aurtengoan bertako La Ola jatetxeak hartuko du gure ekitaldia:: koktela, kanpoko eta etxeko bertsolariak, bideo emanaldia, musika zuzenean, bertsoak, kantu eta dantza...

Aurten, gainera, Balendin Enbeita bertsopaper lehiaketako sariak ere banatuko ditugu bertan. Deskuidoan aurtengoan negu tropikala suertatzen bada, hondartza bertan daukagu!

Zatoz gurekin bertso urtea amaitzera!



Bertsolariak:

Andoni EGAÑA

Nerea ELUSTONDO

ALBEko bertsolariak

+BALENDIN ENBEITA

bertsopaper lehiaketako sari banaketa

ABENDUA

22

EGUENA

ERANDIOKO BERTSO
JIRA MUSIKATUA

19:30

ERANDIO

Tradizio luzeko bertso jira dugu Erandiokoa. Berbots Euskara Taldeko lagun nekazinekin daukagun harreman historiko eta emankorrari esker, bertsolariak protagonista izango dira, berriz ere, urtea amaitzeko bertako kale-tabernetan egingo den bertso jiran.

Esan daiteke Berbots bertso hots bilakatzen dela gurekin elkartzen direnetan. Eutsi goiari, lagun hoskideok!



Bertsolariak:

Beñat GAZTELUMENDI

Paule LOIZAGA

ABENDUA

24

ZAPATUA

OLENTZERO EGUNEKO BERTSO SAIOAK

13:00 URIBE KOSTA

Olentzerok makina bat lan izaten du gure eskualdean, hainbat herritan ospatzen baita ikazkin eskuzabalaren jaia.

ALBEko gaztetxoentzat ere aukera polita izaten da opariak hartu ez ezik, haiek ere euren bertsozko loreak guri oparitzeko.



2022ko Areetako saioa / albe.eus

Egon adi gure sare sozialei ekitaldiak non eta zer ordutan izango diren jakiteko. Horra, horra gure oparia!!!

URTARRILA

20

ZAPATUA

ALBETI BAT EGUNA

13:00 ALGORTAKO
AZEZARRI ELKARTEA

ALBEk berrogeita hiru urteko historia dauka bizkarrean, eta asko dira bertatik pasatu diren bertsolariak eta bertsozaleak. Egun berezi honetan lehengoak eta oraingoak elkartzea dugu helburu, baita aldi laburrez igarotakoak eta eskolakoen lagun hurreko zein asagokoak ere.

Plan gozoa prestatu dugu: bertso bermuta, bazkaria, bertso paperak, kantu eta soinu, bertso ariketa bereziak... ah!AL BEzain ondo pasatzea dugu helmuga. Gonbidatuta zaude!



2023ko ALBETI BAT eguna Algortan / albe.eus

URRIA

22

DOMEKA

BIZKAIKO BERTSOLARI
TXAPELKETA

17:00

ERANDIOKO
MERKATU ZAHARRA

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa urte birik behin jokutzen da, eta aurtten tokatzen da. Bizkaiko bertsogintza osasuntsu dago. Bertsolari asko eta onak dabilta plaza. Gazte berriak ere sartu dira zaharragoen zirkuituan. Neskak inoiz baino indartsuago ari dira bertsotan.

Gure eskualdea, zorionez, ez dago dinamika zoragarri horretatik aparte. Aurtengoan ALBEKO zazpi bertsolari daude parte hartzaileen zerrendan. Sei kanporaketetatik hasiko dira bertsotan neurtzen: Peru Vidal Mungiako saioan; Inazio Vidal Arrigorriagako saioan; Imanol Uria, Paule Loizaga eta Unai Mendiburu Erandioko saioan; eta Peru Irastorza Lekeitoko saioan.

Jone Uria, berriz, zuzenean sartuko da finalaurrekoetara, aurreko edizioan finalista izan zelako. Eta egiaren izenean esango dugu txapela oso hur izan zuela, bigarren egin baitzuen. Ea aurtengoan!!!

TXAPELKETAKO FASEAK ETA SAIOAK

FINAL LAURDENAK

MUNGIA

URRIAK 1 - 17:00

GERNIKA-LUMO

URRIAK 8 - 17:00

ARRIGORRIAGA

URRIAK 15 - 17:00

ERANDIO

URRIAK 22 - 17:00

IGORRE

URRIAK 29 - 17:00

LEKEITIO

AZAROAK 1 - 17:00

FINALAURREKOAK

BERRIZ

AZAROAK 11 - 17:00

SANTURTZI

AZAROAK 18 - 17:00

LEMOA

AZAROAK 25 - 17:00

FINALA

BILBO

ABENDUAK 16 - 17:00

Saioretako sarrerak, www.bertsosarrerak.eus atarian eskuragarri

ASE BERTSOZ

ALGORTAKO AZEBARRI ELKARTEAN



BERTSO PIKOTEOA
ALBEKO BERTSOLARIEKIN

HILEKO AZKEN OSTEGUNETAN

ALBEren eta AZEBARRIren arteko elkarlanetik sortutako bertso ekimen hau 2019an abiatu zen. Ordutik hilean-hilean egin ohi dugu ASE BERTSOZ izeneko bertso dinamika hau Azebarri kultur txokoan. Pikoteo arin baten aitzakian, bertsotan aritzen dira ALBEko bertsolariak, gai edo egoera desberdinetatik abiatuta.

Kantari zein entzule har daiteke parte saio bizi, umoretsu eta mamitsu hauetan. Ederto pasatzen dugu, baina baina zu bazentoz, hobeto pasatuko genuke. Egin proba behin, eta asetu bertsoekin!



26 URRIA

30 AZAROA

25 URTARRILA



BERTSO JAIALDI MUNDIALA 2023





HITZAREN DANTZA 2023



